

A MULTZOA: Latinezko testuen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea.

Multzo honek bi aukera ditu (A.1 eta A.2) eta bakoitzak 7 puntu balio ditu: haietako **bakar bat** aukeratu behar duzu.

A.1.

1. galdera: Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Gerra punikoak Europa eta Afrikako historian garrantzi gehien izan duten gertakarietakoak dira; haietan, Publio Eszipion Afrikarrak protagonismo nabarmena izan zuen. Bai gerra punikoak bai Eszipion bera nonahi agertzen dira europar kulturaren: era guztietako literatura-lanetan, filmetan, margolanetan, eskulturetan, etab. Antzinateko testuek garaikideen edota handik gutxira bizi izan ziren gizakien ikuspuntua erakusten digute.

Hanibalen armada Italian sartu zen; bertako biztanleriaren itxaropena Eszipionengan zegoen jarria.

Anno quarto decimo postquam Hannibal in Italiam venerat, Scipio consul est factus et in Africam missus. Cui viro quiddam divinum inesse existimabatur¹, adeo ut putaretur¹ etiam cum numinibus habere sermonem. (Eutr. III, 20)

Oharrak

1) Uler bedi pasibo inpertsonal gisa.

2. galdera: Egin ezazu *postquam* ... *missus* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz.

1 puntu

3. galdera: Egin ezazu *venerat* eta *inesse* hitzen analisi morfologikoa.

1 puntu

A.2

1. galdera: Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Oraingo gatazka askoren oinarria Antzinatean dago: antzinako testuek haietaz ematen diguten informazioak lagundu egiten digu aipatu gorabeherak beren testuinguruan jartzen eta hobeto ulertzen. Tito Flavio Vespasiano enperadoreak (K.o. I. mendea) egin zituen ekintza aipatuenetako bat Judearen aurkako gerra izan zen, non Jerusalemgo tenplua suntsitua izan zen. Gertakari hauek literatura-lan askoren gaia izan dira eta beste artelan ere batzuetan islatu ziren; adibidez, Titoren Arkuan, Erromako koliseoaren ondoan dagoen eraikinean; Titoren bizitzaren beste alderdi batzuk Mozarten opera ezagun batean ere ukitzen dira.

Erroman, Bakea izeneko jainkosaren tenpluan, erromatarrek Judearen aurkako gerraren ondoren eraman zituzten gauzaki sakratu batzuk gorde ziren.

Titus, filius Vespasiani, Iudaeos vicit atque Hierosolymam delevit. In templo Pacis servantur res sacrae quas Titus Iudaeis ademit¹; in iis candelabrum aureum, mensa aurata quae in templo eorum stabat et tubae argenteae quibus Iudaei convocabantur. (Ørberg II, p. 21)

Oharrak

1) *ademit*: ikus *adimo*, *-ere*, *-emi*, *-emptum* aditza.

2. galdera: Egin ezazu *In templo Pacis ... ademit* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz.

1 puntu

3. galdera: Egin ezazu *res* eta *delevit* hitzen analisi morfologikoa.

1 puntu

LATINA II

LATÍN II

B MULTZOA: Latinaren ondare lexiko eta kulturala gure hizkuntzetan identifikatzea eta garatzea.

Multzo honek 3 galdera nagusi ditu, eta bakoitzak puntu 1 balio du; galdera nagusi bakoitzaren barruan zenbait aukera daude: aukera horietako bakarrari erantzun behar diozu kasu bakoitzean.

1. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

1 puntu

- a) Adierazi zein diren latinezko *annum* eta *herbam* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkina. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniarako bidean?
- b) Adierazi zein diren latinezko *calidum* eta *fugio -ire* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkina. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniarako bidean?
- c) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *fagum* eta *parco -ere* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkina.
- d) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *virtutem* eta *caelum* hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkina.

2. galdera:

1 puntu

Sortu ezazu testu labur bat (20-50 hitzekoa) esamolde hauetako bat erabiliz. Ondoren, azaldu ezazu aukeratutako esamoldearen esanahia.

- a) *Cedant arma togae*
- b) *Corruptio optimi pessima*
- c) *Una salus victis, nullam sperare salutem*
- d) *Age quod agis*

3. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

1 puntu

a) Testu zati hau Plautoren *Miles gloriosus* obratik ateratakoa da. Kokatu ezazu pasarte hau obraren barruan (obra osoa irakurri duzula frogatzen saiatuz), eta eman ezazu zeure iritzia Plautoren obrak erakusten dituen balioei buruz (50-100 hitz).

PALESTRION. — Tori, hemen duzu haren maitasunaren froga.

PIRGOPOLINIZES. — Zer da hau? Nondik atera da?

PALESTRION. — Zutaz maiteminduta eta zure edertasunaren egarriz dagoen emakume erakargarri eta desiragarri batena da; bere neskame esklaboak eman dit eraztuna, nik zuri emateko.

PIRGOPOLINIZES. — Zer da, emakume librea ala esklabo libertoa makilatxoari esker?

LATINA II

LATÍN II

PALESTRION. — Nola ausartuko naiz ni liberto baten eta zure artean bitartekaritza jarduten, ezin badiozu atzetik dituzun emakume librearen saldoari erantzun!

PIRGOPOLINIZES. — Ezkondua da ala alarguna?

PALESTRION. — Ezkondua eta alarguna.

PIRGOPOLINIZES. — Nolatan izan daiteke aldi berean ezkondua eta alarguna?

PALESTRION. — Gaztea delako eta gizon zahar batekin ezkondua dagoelako. (Plaut. *Mil.* 956-966; itz. G. Bilbao).

b) Erantzun bi galdera hauetako bati:

b.1) *Erromatar antzerkia: Plauto eta Terentzio*: Laburtu erromatar antzerkiaren datu garrantzizkoenak, eta azaldu Plauto eta Terentziori buruz dakizuna.

b.2) *Latindar poesia: epika eta lirika*: Laburtu latindar epika eta lirikari buruzko datu garrantzizkoenak, kontuan izanik genero hauetako idazle esanguratsuenak.